

# Maskarada



AMANCAY GAZTAÑAGA  
AKTOREA ETA ZUZENDARIA

## MASKARADA: GIZARTEAREN SATIRA OROKORRA EGITEN DEN IKUSKIZUNA

Gaur beste e-mail bat iritsi zaigu. Azken bi asteetan, bost. Premiazkoa dute martxo-ko ekimenetarako, emakumeek sorturiko emanaldi bat topatzea. Gu kontratu nahi gaituzte. Agenda hartu dut, martxoa entzuten dudana bakoitzean hotzikarak sartzen zaizkit. Ireki dut. Ez da ezer gehiago kabitzen, topera nago martxoan. Nire lan-kideari komentatu diot, agian saia gaitezke eskaera horri tokitxo bat egiten, gure profesio honetan ez da ezetz esatea komeni. Berriz ere agenda atera eta... Ezinezkoa, ez dugu tokirik martxoan. Martxoa: *petatuta, full*.

E-maila erantzun dut, agudo: martxoa topera dugu, baina ez genuke emanaldi hau egiteko aukera galdu nahi. Mesedez beste hilabete batera pasatzerik bai?

Erantzuna: lastima, martxorako behar du. Ez dago beste aukerarik.

## MASKARADA: MASKARATUTA DOAZEN PERTSONEN KONPARTSA

Ezkorra ote naiz? Urteko hilabete ho-

Ez gaitezen konformatu.  
Irla morearen isla hain da tentagarria. Sistemak maskarada du maite, engainua. Trebezia handiz daki bere kontra doan guztia azkar estaltzen

netan, inoiz baino gehiago egingo dut lan... eta lana ez den guztia; ikastaroak, hitzaldiak, ekintzak... Martxoa topera dugu, neskak! Poztu gaitezen! Mila esker udaletxe, banatzaile, teknikari, sortzaile maskulino, martxoa guri uzteagatik. Esker mila toki pixka bat egiteagatik. Ez naiz diplomazia zale, ezagutzen nauzue-nak badakizue, ezta ogi-apurrekin asetzen den horietakoa ere. Bada denbora, mugimendu feministara gerturatzen ari den jende askorengan, sistemaren kira-tsa usaintzen dudana. Kontziente naiz,

azken aste hauetan iritsi diren e-mail horietako askoren jabeek ez dakitela zer den gure ikuskizunean kontatzen dena. Bi emakume dira, emakumeen gauzez hitz egiten, programatu ditzagun, baina martxoan ez bada, ez.

## MASKARATU: ESTALI, EZKUTATU, GORDE

Emakumeen gauzak...

Bigarren e-mail horretan jarraitzen dugu, apurrekin asetzen... Eta ni gose naiz... Eta ez, ez naiz konformatzen. Ez gaitezen konformatu. Irla morearen isla hain da tentagarria. Sistemak maskarada du maite, engainua. Trebezia handiz daki bere kontra doan guztia azkar estaltzen. Baina gu transatlantiko bat gara neskak, itsaso bortitz hau zeharkatzen goaz, martxa geldo ezinean. Ondo gabiltza lanean. Oraingo honetan gu geratzea zaila izango dela pentsatu nahi dut. Adi jarrai dezagun. Ase gaitezen, jan dezagun bap. Ez gaitezen poztu martxoa topera dugulako, izan dezagun urte osoa topera. Utz diezagutela behingoz, dago-kigun tokiak. ●